




## EAEko ekonomiaren termometroa 109,3an kokatu da

### EAEko ekonomiaren termometroa

Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Urtarrilean, EAEko ekonomiaren termometroa 109,3an kokatu zen, abenduan baino 5,1 puntu gehiagoz hazkunde biziko eremuan egonkortuz. Hobekuntzak barne eskariaren sendotasuna du oinarri, inbertsio eta kontsumoan hazkuntzeekin. Kanpo sektoreak ordea, ia ez zuen ekarpenik egin. Industriak modu oso motelean egiten zuen aurrera, zerbitzuen eta eraikuntzaren dinamismo handiagoaren aurrean.

## 2025ean 3.951 enpresa sortu ziren Euskadin

### EAEEn sortutako enpresak

Urte bakoitzeko urtariletik abendura bitartean




INEk argitaratutako informazioaren arabera, **2025ean 3.951 enpresa eratu ziren guztira Euskadin, hots, 2024an baino %14,9 gehiago**. Iazkoa eskuragarri dagoen serie osoko erregistrarik altuena da. Era berean, azpimarratu behar da enpresa horiek eratzeko 423 milioi euro baino gehiago ordaindu zirela.



## EAEko merkataritzaren salmentak %1,3 hazi ziren

### Merkataritzako indizea

Urte bakoitzeko urtarriletik abendura. Indizea



Iturria: Eustat.


**Euskadiko merkataritzako salmentak %1,3 handitu ziren 2025 osoan.**

Urteko emaitza oso positiboa izan zen bai ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren sektorean (%4,4) bai txikizkako merkataritzan (%3,5). Handizkako merkataritzan, berriz, salmentak %0,5 gutxitu ziren.

## Euskadiko inflazioa %2,3ra beheratu zen urtarrilean

### EAEko kontsumo prezioen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu duenez, **inflazioa %2,3koa izan zen urtarrilean**. Hau da, aurreko hilean baino sei hamarren gutxiago, batez ere energiaren merkatzeari esker (-%2,4) 2025eko urtarilaren aldean. Merkatze honek, hondar inflazioa %1,2ko maila apalean utzi zuen. Aitzitik, azpiko inflazioa %2,6ra igo zen, zerbitzuen eta elikagaien garestitze handiagoren ondorioz.